

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Familia ugariei hobariak emateko odenantza fiskalen aldaketa behin-behinean onartzea

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, kirol-instalazioak erabiltzeagatik tasa, zerbitzu publikoak emateagatik tasa eta administrazio-jarduerak arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldaketa behin-behinean onartzea.

Udalbatzak, 2021eko irailaren 17an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga, kirol-instalazioak erabiltzeagatik tasa, zerbitzu publikoak emateagatik tasa eta administrazio-jarduerak arautzen dituzten ordenantza fiskalak aldatzea, familia ugariei hobariak emateko.

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izango dituzte.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betiko hartu dela ulertuko da, ordura arte behin-behinekoa izan dena, eta ez da beharrezkoa izango beste erabaki bat hartzea. Testu aldatua ALHAOn argitaratuko da.

Eltziego, 2021eko irailaren 17a

Alkatea

LUIS ALDAZABA RUIZ DE VIÑASPRE